Mahai Negoziatzailea

Ekainaren 17an izandako **Mahai Negoziatzailearen** laburpena honako hau da:
-Kudeaketako langileen lanaldia eta egutegiaren 19. artikulua (urteko lanaldia) eta II eranskinaren (egutegi eta oporrak) aurreakordioa hitzartu eta sinatu genuen enpresa eta alderdi sozialak. Langileentzako onuragarria izango dela pentsatzen dugu, urteetan ez dutelako inongo hobekuntzarik izan.

Mahai negoziatzailea bukatuta, esleipenari eta beste gai batzuei buruz batzarra izan gendun:

ESLEIPENAK:
Enpresak bi prozesu desberdin egingo dituela esan zigun:

- Lehenengo prozesua uztailaren 14an izango da.

Enpresak Lep arteko bakantearen identifikazioa egin nahi du eta urteetan aurrera eraman duen kudeaketaren ondorioz sortutako disfuntzioak konpontzeko egingo du lehenengo prozesu hau. 2012tik hona, Lep-arteko kontratua dituzten hezitzaile batzuk esleipenetan hartutako lanpostuak ez ziren bakanteak, ordezkapen luzeak, amatasunak…baizik, hain zuzen ere. Horregatik, haurreskola batzuetan hezitzaile batzuk LZtik kanpo daude, 10 Lep-arteko, alegia. Hezitzaile hauek dira esleipen honetan parte hartu beharko luketenak.

- Bigarren prozesua ekainaren 23an egingo da.

Beste urteetan bezala, finko eta LEP-arteko desplazatuak joan behar dira. Desberdintasun bakarra hauxe izango da: Finkoek zein lep arte kontratua dutenek esleipenetan behin behiniko lantoki bat hartuko dute, BAINA JATORRIZKO HAURRESKOLAN ATXIKIMENDUA mantenduko dute. Jatorrizko haurreskolan matrikulazioa igotzen denean aukera izango dute haurreskolara itzultzeko.

Gauzak horrela, Uztailaren 14an bakantea hartzen dituzten 10 LEP-artekoek, ekainaren 23an mugituko dituzte (finkoak eta lep-artekoak) baino lehenago aukeratuko dute lantoki bat, zerrendaren hurrenkera errespetatu gabe.

Steilas sindikatuak partzuergoari proposamen bat egiteko lanean jarraitzen du, ordezkoen zerrendari behar duen garrantzia emateko.

UZTAILEKO EGOERA:
Uztaileko umeen bajak direla eta hainbat mugimendu egongo daitezke, Haurreskolak Partzuergoak 3 lan egunen aurretiaz jakinarazi behar dio hezitzaileari egoera berria. Jada hasi dira deiak egiten antolatzeko.

HAURRESKOLA TXIKIAK:
Azkenik Partzuergoak jakinarazi zigun. Zuzendaritza batzordearen erabakia: Hezitzaile, familia, udaletxe eta sindikatuen eskaera eta azalpenei muzin eginez, 4 ume dituen haurreskola txikietan 7 ordu baino gehiago ez zabaltzea. Honen aurrean berriro ere gure desadostasuna adierazi genuen, publikako Haurreskola Partzuergoko haur guztiek kuota berdina ordaintzen batitute, baina ez dute zerbitzu berdina jasotzeko hezkubidea.

Langile guztien onurarako,
bidezkoa den araudia lortzeko
steilas beti lanean.

2015/06/24